

TOKIKOM

2014ko maiatza | 137. zenbakia

ai!r!

txorierriko aldizkaria

1000
baietz!





UDALA

**ETORRI ETA
PARTE HARTU**

Eastern Hill, 30
 48130 SONTZINA
 ☎ 94 403 55 05
 9467 19 60 31



PEÑA ATHLETIC
 BITT HARROBIA



Gautxori
Gure herria, gurea, 18
48150 SONDICA



IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MTX.NE.3
40150 SONDOKA
Tel: 94 462 992 00
Mugakora 617 674 202
Mugakora 688 601 671
ibarrondod@gmail.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Susana Rodríguez, Gaizka Peñañiel, Itxaso Zarate, Derioko Liluraturia taldea, Aner Mentxaka, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



HEZKUNTZA, HAZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA GAILA
Hizkuntza Politikako Departamentua
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Ministerio de Educación y Cultura



diruz lagundutako aldizkaria



12 Roberto Tananta



16 Gazteak, baserrira bueltan



24 Zamudio eta Sondikako jaiak

- 4** Eritxia
- 5** Laburrak eta albisteak
- 11** Iruditan... Maskarada, Zamudion
- 12** Gurean izan da... Roberto Tananta, aktorea
- 14** Gaztea eta... Iker Txarterina, baleekin igerian
- 16** Gazteak, baserrira bueltan
- 20** 1000 baietz! Aikor!lagun kanpaina
- 22** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 24** Zamudioko jaiak
- 27** Sondikako jaiak
- 30** Berdintasuna
- 32** Berbalagunen txokoa
- 34** Teknologia
- 35** Aikorrizketa... Azkue eta mugikorra
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda





SUSANA RODRIGUEZ
(Abokatua)

Kablerik gabeko Interneteko konexioa ez da, itxuraz, konpainiek saltzen diguten bezain fidagarria. Abiadura motelagoa da –interferentzia eta seinalearen galeraren ondorioz–, datuen segurtasuna ere txikiagoa da eta, gainera, uhin elektromagnetikoak igortzen ditu sistema horrek. Osasunaren Mundu Erakundeak eta ikertzaile ugari aspalditik ohartarazi digute murriztu egin behar dela uhin elektromagnetikoen igorpena, gizakion osasunarentzat kaltegarria delako; batik bat, gaixo kroniko,

adineko, emakume haurdun eta umeentzat. Uhinen eraginpean eten barik daudden pertsonen, azkenean, asaldatu egiten zaie sistema immunologikoa, eta hainbat patologia pairatzen dituzte sarritan, hala nola, buruko mina, bihotzaren taupaden igoera, azkura, suminkortasuna, loezina... Gainera, telekomunikazio-konpainien arteko lehia basatia tarteko dela, gero eta telefonía-antena gehiago landatzen ari dira nonahi, eskaerari erantzuteko aitzakiaz. Telefonía mugikorren antenak herriarren osasunaren etsai amorratuak dira (frogatuta dago antenetatik oso hurbil bizi diren lagunek maiztasun handiagoz pairatzen dituztela bihotzekoak eta minbiziari lotutako gaixotasunak) herriko parke, ikastetxe, ospitale, nagusien etxe eta etxebizitzetatik hurbilegi kokatzen direnean.

Uhin-igorpene murrizteko auzian, Europako beste herrialde batzuek hartutako erabakiei jaramonik egin barik, aurreko legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak wi-

fia ezarri zuen Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko ikasgeletan, Eskola 2.0 programa dela medio. Hala, neska-mutilek ordenagailu eramangarria erabili ohi dute ikasteko eta Interneteko konexioan ez da kablerik erabiltzen, orduko agintarien iritziz, ikasle-irakasleentzat erosoagoa eta eraginkorragoa delako. Gaur egun, sistema horren aurkako ahots ugari daude, eta gero eta plataforma gehiago sortzen ari dira wifi bidezko konexioa eskoletatik kentzeko. Arartekoren 2013ko arazoko irizpen batek ere kable bidezko konexioaren alde egiten du, betiere eraginkorra bada eta ikastetxearen beharrezanean erantzuten badie (Lezoko eskola batean gertatu moduan).

Aurrekoa esanda, izenburuko galderaz hausnartzeko gonbita egin gura dizuet neska-mutillak eskola-sasoian dauzkazuen gurasooi: benetan uste duzue teknologia berrien *aurrerapena* gure seme-alaben osasuna baino garrantzitsuagoa dela?

Badator eguna, txorieritarrok egiteke dugun ibilbide luze baten lehendabiziko urrats zirrargarria. Ekainaren 8ko zita ez da erabakitze eskubidearen aldeko aldarrikapen soila, gure herriak bizi izan duen elkartasun deialdi garrantzitsua ere bada. Horren lekuko da gure bailara, inoiz baino batuago aritu garelako azken hilabeteotan; elkar errespetatuz, ezberdintasunak alde batera utziz, guztion arteko loturak bilatuz...

Langileak gara, ikasleak, sortzaileak, euskaldunak, erdaldunak... desberdinak azken batean; baina gure oinarriak sendoak dira, eta indar metaketa horrek sortu duen uholdea, geldiezina. Hori ikusi nahi ez due-

Etorkizuna herritarrongan dago



GAIZKA PEÑAFIEL
(Musikaria)

na ere datorkion uholdeaz konturatuko da, olatuak harrapatzen duenean. Eta orduan ere, ongi etorria izango da. Nazio honek ez du jauntxorik behar, dagoeneko gizarte heldua gara guretzat nahi duguna erabakitzeke: "...ibiltzen aspaldi ikasia dugu, otsoak eskutik hartu gabe!". Badakigu zer nahi dugun, eta hori da egun horretako "exodo"-aren ardatza; datozen belaunaldien Historia-liburuetan agertuko den mugarria.

Txorieritarrok Arakilen dugu hitzordua. Erabakitze eskubidea GURE ESKU DAGO!

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Amaiketako
importaciones de comida

ESPECIALIDAD EN:
- HERRI-VEGETAL, LECHE y QUESO II
- PLATOS KOREANOS
- SALSAS
- PASTAS
- PANES
- Y MUCHO MAS...

94 455 48 92
Calle de la Libertad, 11 - 48100 BILBAO

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontóloga

Unidad de salud bucal
- Atención de urgencia
- Atención de día
- Especialidades: Ortodoncia, Implants

Gose greban, Zamudion



Maiatzaren 1ean, Jose Mari Lejardi Gabixolak gose grebari ekin zion. Gabixola garraiolaria autonomoa da eta gose greba garraio-sektoreak gaur egun duen egoera larria salatzen egiten dabil. Azaldu digun bezala, berak lan egiten duen enpresak 2005. urtean sinatu zuen azken aldiz hitzarmena eta bizi-kostuaren % 24ren azpitik dabilta lanean. "Kilometroko ordaintzen digutena eta soldata bizi-kostuaren parekoak izateko eskatzen dut, eta duintasuna berreskuratzeko". Garraiolariaren esanetan, hausnarketa eta eztabaida bultzatu behar dira eta ezinbestekoa da sektoreko langileek indarrak batzea. "Botere handia dugu. Kamioia bost egunean geldirik edukiko bagenu, supermerkatuetan-eta ez litzateke

ezer egongo eta dena egongo litzateke geldirik. Eta goian daudenak larrituko lirateke".

Maiatzeko alea itxi orduko, 21 egun bete dira Gabixolak gose greba hasi zutenetik. Ondo sentitzen dela dio, indartsu eta gogotsu. "Ondo mentalizatuta nagoe-lako, beharbada". Gabixola Markina-Xemeingoa da, baina gose greba Zamudion egitea erabaki du, "hona egunero garraiolaria asko etortzen direlako; neu ere bai. Leku aproposa da". Kanpadenda Torrelaragoiti industrigune ondoan ipini du. Herriko alkateak bisitatu duela esan digu, eta elkartasun handia jaso duela beste garraiolaria batzuegandik, inguruko enpresetako langileengandik eta zamudioztarrengandik.

Kondor Legioa

Baskale eusko-alemaniar elkarte soziokulturalak eta Lau Haizetara Go-goan plataformak Kondor Legioaren gaineko erakusketa antolatu dute, eta hori herriz herri zabaltzen dabil-tza. Erakusketak memoria historikoa-ri eustea du helburu, eta, horretara-ko, argazkiak zein azalpenak batu di-tuzte bertan: zelan hasi zen legioa, nolako helburuak zituen, eta non eta zelan hartu zuen parte, besteak bes-te. Erakusketa Oxangoiti Lezamako tabernan ipiniko da ikusgai ekaina-ren 6tik 30era, Lezama Bizirik elkartea-ren eta Oxangoiti elkartearen esku-tik. Horrezaz gainera, erakusketaren antolatzaileek hitzaldi bat eskainiko dute ekainaren 13an, iluntzeko 8etan. Lezama Bizirik elkartetik go-gora ekarri diguten moduan, tropa faxistek ekainaren 13an hain zuzen ere apurtu zuten Burdinazko Gerri-koa Lezamatik, orain dela 77 urte.

Lekurik kuttunena

Mugetatik Lezamar Kirol Klubak joko bat proposatu die Lehen Hez-kuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikas-leei, herria apur bat gehiago ezagut dezaten. Umeek Lezamako Muge-tatik ibilaldi-lasterketa pasatzen den leku bat aukeratu behar dute eta ho-rrren argazkia edo marrazkia egin, eta zergatik gustatzen zaien azaldu. La-nak maiatzaren 31ra arte utzi ahal di-tuzte eskolan, Lezamako maparen ondoan, dagoen postontzian. Lan guztiekin horma-irudi bat osatuko da eta opariak zozketatuko dira.

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Lanbide 1, 40100
944541433

**HERBICITEGIA
URDHITEGIA
IMAZ**
MANIZALDE ETORRIGEA
TUPON 14 451 1175
DERIO
Estekari aslo
etorrigaiaik

**MARMOLGINTZA
GOYO**
SERVICIOS DE MARMOL Y PIEDRA
Kopelagorri 1, 40100, 944541433
944541433
T.: 94 454 1175 - Fax: 94 454 1175

**ELORRIETA
INSTALACIONES**
ETXE-ETA INDUSTRIAL-ELKARTUTASUNA
Urdin Kalea, 12 40100 Derio (Bizkaia)
94 454 1175
639 57 98 48 - 639 58 23 47

**OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK**
Lasai
Luis M. Asensio
Terapeuta naturalista
Lanaberr, 1. planta - 48100 DERIO
Tel: 94 454 10 20 - Sareko hel: 655 74 24 03
osteopatiainfo@gmail.com

**WAFETEGIA
IAZI
JATETXEA**
Jai Kalea, 2 - 40100
Tel: 944 54 29 56

Iñaki Aretxabaletaren Magalarte txakolinak urrezko domina lortu du Bruselako nazioarteko lehiaketan. Han 40 herrik hartu dute parte eta guztira 8.000 ardo aurkeztu dira. “Pozik gaude eta saria gustura hartu dugu. Eragingarri bat da aurrera jarraitzeko, eta gauzak ondo egiten gabiltzan adierazgarri”. Bestalde, aipatu beharra dago aurtengoa oso urte ona izaten ari dela Lezamako upeltegirako. Hala, zilarrezko Bacchus saria jaso du barrikan hartzitutako txakolin zuriagatik, eta “Txakoli de Bizkaia - Bizkaiko Txakolina” Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak Magalarte txakolina aukeratu du aurten jatorri-deituraren ordezkari izateko.

Txapeldunari Igotz Lopez Torre Zamudioko alkateak jantzi zion txapela, eta

Bertsolariak puntuazio hauek eskuratu zituzten: Malen Amenabar Larrañagak, 368 puntu; Inazio Vidal Gurrutxagak, 342 puntu; Peru Vidal Gurrutxagak, 229,5 puntu; Beñat Vidal Gurrutxagak, 227,5 puntu; Jone Larrinaga Dañobeitiak, 214 puntu; eta Aitor Esteban Etxebarriak, 191,5 puntu.



ZAMUDIO DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Kalea Marka zuzena, 1
Tel.: 94 454 10 78
Faxa: 94 454 12 1a
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
MUSIKARIETAKO
NOROKO PAKETAKO OLAGA, LTD.
C/JOSE ANTONIO GARCIA, 10
48001 BILBO (VIZCAYA)

Tel.: 94 454 10 77 - 669 04 51 15
Faxa: 94 454 12 1a

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Itakaboi 212, Parke Tecnologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com



RUBEN
ERLOU-DENDA BITXITERIA

La Informació Laboral (pàg. 2)
01 712 Can. gda
94 432 04 40

ZAMUDIO MOTOR

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagorda
Pol. E. Siqués 2
4170 ZAMUDIO
BIZKAIA



Txakolinaren Eguna, Lezaman

Ekainaren 1ean Txakolinaren Eguna egingo da 13. aldiz Lezaman. Azoka 11:00etatik 15:00etara izango da, eta bertan herriko eta eskualdeko zortzi ekoizle hartuko dute parte: Garkalde, Magalarte, Basalbeiti, Eguzkialde, Erdikoetxe, Sasines, Gorka Izagirre eta Bitxia. Udaletxeko plazan eta inguruetan 36 saltoki ipiniko dira: eztia, gazta, ogia eta euskal pastela, barazkiak, kontserbak... Txakolina edateko kopak eta txartelak Udalaren saltokian eskuratu ahalko dira.

Kurutze dantza taldeko umeek dantza agerraldia eskainiko dute 12:00etan

frontoian, eta 12:30etik aurrera okela-pintxoak dastatzeko aukera egongo da Lezama Saretzen elkartearen eskutik. Ekitaldi nagusia 13:00etan izango da. Kortxoa atera eta topa egingo da. Era berean, Sara Gandara kazetaria izendatuko dute Lezamako txakolinaren enbaxadore 2014. urterako, eta oroitzapenezko plaka emanango diote Garkalde upeltegiari. Ostean, bertso-saioa egongo da. Bestalde, aipatu beharra dago goizean zehar puzgarriak egongo direla eta lau urtetik 11 urtera bitarteko umeentzako tailerrak antolatuko direla. Musikaiek girotuko dute azoka.

Giro aparta, Lasterbidean lasterketan

Jendetza handia batu zen martxoaren 18an Larrabetzun, Lasterbidean nazio elkartasun lasterketan parte hartzera. Ekimenak euskal errepresaliatu politikoen eta beren senideen eskubideak aldarrikatzea du helburu eta bigarren aldiz egin da aurtan. Eguraldia lagun, giro itzela izan zen Larrabetzun egun osoan, eta Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako lagunak hurbildu ziren hara. Ibilbide bi atondu ziren: bata, 3,2 kilometrokoa; eta bestea, 7,6 kilometrokoa. Ibilbide laburrean 300 lagun aritu ziren, eta luzean, ia 800 lagun. Sailkapenak eta bideoak www.lasterbidean.com/2014/sailkapena.html webgunean ipini dituzte ikusgai. Lasterketaz gainera, beste ekintza batzuk antolatu ziren, hala nola herri bazkaria, herri kirolak eta kontzertuak. Antolatzaileak zein korrikalariak pozik azaldu ziren lehiaketak izandako erantzunarekin eta parte-hartzearekin.



Etorkinen oroimenezko eskultura, Derion

Lana Andres Montesanto italiar-argentinarrak artistak egin du eta Kultur Birikaren ondoan ipini da. Eskultura ekainaren 5ean, 12:30ean, inauguratuko da, eta, azaldu digutenaren arabera, lan bik osatutako proiektu baten parte da. Horrela, bada, Malagan badago beste eskultura bat, Derion ipini denaren negatiboa dena. Bestalde, ekainaren 5etik 12ra bitartean Montesantok memoria historikoari eta giza eskubideei buruz egindako lanak ikusgai egongo dira Kultur Birikan. Malagan bizi den artistak, batez ere, Argentinako diktaduran zein Espainiako Gerra Zibilean desagertu zirenei lotutako lanak landu ditu.



a: DerioKOMunikazioa

Euskadiko txapelak



Apirilaren 26an Taekwondo Euskadiko Txapelketa izan zen Getxon, borrokalari kategorian. Txapelketan Doyan Derio klubeko 27 kirolari hartu zuten parte: 13 neska eta 14 mutil. Kirolariak kadete mailan aritu ziren eta gaur egun arte eduki dituzten emaitzarik onenak lortu zituzten bertan: bost urrezko domina, zazpi zilarrezko domina eta bederatzi bronzeko domina. Dominei esker, lehenengo postuan gelditu ziren taldea eta, ondorioz, txapelketaren garaile izan ziren.

Txapelak eta bigarren postuan gelditu diren kirolarietako batzuek Espainiako Txapelketan hartuko dute parte. Txapelketa maiatzaren 31n egingo da

Castellonen. Asier Rodriguez Martinez klubeko maisua eta zuzendaria da, eta oso harro azaldu da neska-mutilek lortutako garaipenarekin. Era berean, kirolari bakoitzak adierazitako ahalegina, kementa eta ilusioa azpimarratu ditu. "Klub xumea gara, herri txiki batekoa, baina gure gaitasunetan sinesten dugu eta horrexek lagundu digu garaipena lortzen. Eta batez ere gure taldean sinesten dugu, hori osatzen duten kirolari bakoitzarengan, hazten elkarri laguntzen diotenak. Bestalde, Rosari, Gaizkari, Iñigori, Martini eta Anderri eman nahi dizkiet eskerrak, lorpen hau haien lanari esker ere eduki dugulako".

Club Hípico Aretxalde
Pony club - Escuela ecuestre
Recreo para todos - Cursos de iniciación
Sello - Transporte - Alojamiento para todos

Telefonos:
986 45 00 75
986 45 00 75

Avda. de la Paz, 11 • 48940 LEZAMA

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gordailua 11 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 51 11
48936 LEZAMA (GORDAIA)

LEJARRENE JATETXEA
Gordailua 102 • LEZAMA • T. 94 455 51 48

ROXALEBU
JATETXEA

Gordailua, 1 LEZAMA

T. 94 455 41 10

LOTERIA LEZAMA

PRIMARIA
LOTERIA PRIMARIA
1x2
SANTZARRA
EKOLOGIKOA

CAJAS DE PENSIONES
LOTERIA DE FORTUNAS
ZARRITZA, IMPRENTAZA,
TABACOS, etc.

Avda. 110 • 48936 LEZAMA (GORDAIA) • TEL: 94 455 54 17

S.T. LEZAMA
SANTZARRA, IMPRENTAZA, TABACOS, etc.

T. 94 455 54 17

Koadrila Eguna

a: Lurdes Etxebarria

Larrabetzun egin zen maiatzaren 17an. Ekitaldian umek, gaztek zein nagusik osatutako 20 koadrilak baino gehiagok hartu zuten parte, eta eguraldia aldekoa izan zuten egun osoan zehar. Jende andana egon zen herriko txoko guztietan. Goizean kalejira eta tortilla txapelketa egin ziren. Txapelketara 19 tortilla aurkeztu ziren eta sari bi eman ziren. Koadrila bakoitzak bere bazkaria prestatu zuen eta guztiek batera jan zuten kalean. Ikusgarria. Arratsaldean LBK jaialdia egin zuten eta han herriko taldeak, rockzale gazteak, nagusiak, bertso rockzaleak... aritu ziren. Ostean, fanfarre batek hartu zuen txanda eta kalea girotzeaz gainera, dantzan ipini zituen koadrilak. Handik aurrera bakoitzak egin zuena beste kontu bat da...



Idi-probak

Maiatzaren 31n eta ekainaren 1n, zapatuan eta domekan, idi-probak egingo dira Larrakoetxe Loiuako auzoan. Sarrera doan izango da Loiuaren erroldatuta daudenentzat. Idi-probak arratsaldeko 6etan izango dira zapatuan, eta proba-bilekura inoiz atera ez diren hiru uzta-ritari arituko dira: Urtikoetxe baserria (Lauroeta), Bilbao/Ugarte (Erandio) eta Piñubari (Goierrri). Gaueko 9etan txitxi-burruntzia eskainiko da eta dantzaldia egongo da. Domekan Bizkaiko Txapelketaren finala egingo da pisu libre kategorian, eta bertan hauen idiek hartuko dute parte: Iñigo Aurrekoetxea (Loiu), Bikarregui (Erandio) eta Aurrekoetxea anaia (Bermeo). Finala arratsaldeko 6etan hasiko da.

Energia-subirantotasuna

GoiEner kooperatibak hitzaldi bat emango du ekainaren 6an, 20:00etan, Uribarri Topalekuan. Bertan, egunero kontsumitzen dugun energiaren ekoizpena, kontsumoa eta erosketa edukiko dituzte hizpide eta enpresa elektriko handien ordezeko aukerak aurkeztuko dituzte. Energia, batik bat elektrikoak, gizartearen oinarritzko ondasun bilakatu da gaur egun, ura edo elikagaiak bezain beharrezkoa dena. Kooperatibak herritarrek oinarritzko ondasun honen kontrola berreskuratu eta bere garrantziaz jabetzea du helburu. Horretarako, energiaren kontsumo arduratsua eta iraunkorra bultzatzen du. Ekitaldia Lezamako trukezaleak taldeak antolatatu du, eskolako gurasoen elkartearen laguntzarekin.



Oste ekitaldi berragur
ordutukoak, berrak,
funtzioak, eskututak...

Pisuei aurrea emanda

Gelt. 4 - 48100
Beneitza - Bizkaia

94 453 16 17

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNDOIA DE ETCORRITA, 20
48160 GERNI
94 496 2632
Jordi Insausti Tardueñaga

LOREGAURI
GARRIKHTA XERBITZUAK
Ondo dardatzen, erretzen
Aukeratu Loregauri
Babandura (petiole) osoa
Babandura eta berrak
Ondo erretzen eta gustatzen
Babandura
Zatitu bi berrak

Benako Plaza, 1 - 48' Aukeratu
48100 DERIO (Bizkaia)
loregauri@radiokan.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 485
Fax: 94 406 49 93

ZURBEGOTTI
JATETXEA
Lanarua 11, 48940 Leizor, 27
411 66 111 - 411 66 112
A. Lopez: 64 433 26 60
zurbe@zurbegotti.com



elekma
JAWA BARU PT. ELEKTROKMA ELECTRIC ENGINEERING
JALAN KEMANGKAPAN KEMANGKAPAN KEMANGKAPAN
JALAN KEMANGKAPAN KEMANGKAPAN KEMANGKAPAN

alamat: jalan k. kemangkapan k. kemangkapan k. kemangkapan
POSCHE, SIEMENS, SANYO

Tel: 081-2511-1111
Fax: 081-2511-1111
www.elekma.co



MAS X MENOS
Jamari-danda
Presic pangabeak



Restorano, 3 OERIO
679 86 79 41



Zamudioko Maskaradea

a: Itxaso Zarate



Lagatu Zamudioko euskera alkarteak Zuberoako zati bat ekarri euskun Txorierrira, maiatzaren 10ean. Halan, bada, Gaztedi Santutxuko dantzari taldearen laguntzeagaz Maskarada bat antolatu eban urtero egiten dan Euskal Astearen egitarauaren barruan. Ekitaldiak ikusmina sortu eban, eta, alkartetik adierazo deuskuen moduan, dana ondo baino hobeto urten zan. Goizean barrikadak eta plazea hartzea egin ziran, eta arratsaldean, ofizioak. Dantzarien eta ekitaldian parte hartu eben herriko taldeetako kideen esfortzuak saria euki eban, Zamudioko Maskaradea erabat arrakastatsua izan zalako, bai ikuskizunaren aldetik, bai ikusleen aldetik. Horren erakusgarri, egunak itxi ebazan irudiak eta momentuak.



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTROSTATIA ETA MENDAKA
PUNTUAN JARTZEA

Foralekuagutzi ind., 8 - 2TE Pak.
Tel.: 94 452 07 06

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA - URDAITEGIA
Ote Kalka. 1 • Tel. 94 452 00 69 - 46170 ZARITZURI

URRUTIAZARTEGIA
ZAMUDIO

Calles de Euzkadi, 2
Tardelua • Tel.: 94 452 20 10 • 46170 ZAMUDIO (Bilbao)

harategia - urdaitegia
MIGUEL



ESPECIALITATEAK
URDAIAZPIKOA
ETA GAJTA

Mikel Oteiza, 7 • 46170 ZARITZURI • Tel. 94 452 94

t o k t a k

ETXUNEKO MENUA
BISTEC: 9,95€
KALDERO: 9,95€
SALMONTA: 9,95€
9€

Bizkaia 8, Barrio ARTEO CERO
T: 94 454 55 55

Alfa Romeo
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERMINAKO ARDOLA 12 (TRABE) 48100 OTEO-BIZKAIA
Makila: 945 87 05 41 - 945 16 77 12
Teléfono Fax: 94 454 81 60
www.alfaromeo.com



**Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin**

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Maiatzaren 8an eta 27an (18:30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANGIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioaren 1. urteko ikaslea
- Enk. Kalkulatu (2 urte)
- Fabrikazio Mekanikoko Dismatiko go-maketa sistemak
- Enk. maketa (2 urte)
- Produktibitate Programazioa
- Enk. maketa (2 urte)

ABBURTABUNA ETA INDURUMINA

- Ingurumen-Enk. maketa
- Enk. maketa (2 urte)

Gure tailerrak eta laborategiak ezagutzera etorri

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko go-maketa sistemak
- Enk. Kalkulatu (2 urte)
- Teknologia eta Informazioa
- Enk. maketa (2 urte)

MARKETARITZA ETA MARKETINA

- Saltzearen 1. urteko ikaslea
- Enk. maketa (2 urte)



t: Gaizka Eguzkitza / a: R.T.

Zer egiten du Amazoniako indigena batek Basaurin?

Nire neskalaguna Basaurikoa da eta bera kooperante zebilela ezagutu nuen Kolonbian. 2005ean esan zidan behar nindutela film bat egiteko, eta hona etorri nintzen. Filma grabatzen bukatu genuenean, bisa agortu zitzadan eta etxera itzuli behar izan nuen. Hala ere, 2007an erabaki nuen Euskal Herrian bizi izatea. Izan ere, neskaren herria eta hizkuntza ezagutu nahi nituen, berak nireak ezagutzen zituen moduan. Oporretan eta saiatzen naiz Perura itzultzen.

Eta euskara ikasi zenuen...

Bai. Nire itxurak baldintzatzen nau Euskal Herrian, baina euskara dakidanez, jendea beti laguntzeko prest agertzen da. Txillardegik idatzi zuen euskalduna euskara duena dela, eta gaur egun ni ere sentitzen naiz euskaldun. Hitz egiteko orduan, akatsak egiten ditut, baina berdin dit, ez dut lotsarik. Nire ama-hizkuntza ere oso gatxa da ikasteko.

Zamudiora etorri zara, zure herriari buruz hitz egitera. Azalduko diguzu zein den indigenen egoera?

“Indigenok nortasunaren bila gabiltza”

ROBERTO TANANTA | Amazoniako lagun euskalduna

Amazonia urrun dago eta Brasili lotzen diogu, baina planetaren birika hainbat herritatik zabaltzen da. Haietako bat Peru da, eta hangoa da, hain zuzen ere, Roberto Tananta. Lagatzu euskara elkarteak Roberto gonbidatu zuen bere herriari buruz hitz egiteko. Hitzaldia zein elkarriketa euskara hutsean egin dugu.

Indigenok nortasunaren bila gabiltza: esate baterako, galdetzen diogu geure buruari gure abizenak nondik datozen. Hori duela 10 urte hori pentsaezina zen. Ez da urrats handia, baina tira... Lotsa erabat galtzen dugunean eta nortasuna argi

dugunean, lurra defendatzea da hurrengo pausua. Nire aititeak esaten zuen gure herria gure hizkuntza dela. Eta tupi guarani familiakoak Hegoamerika osoan gaude, Paragwaitik Boliviara. Noraino helitzen dira gure lurrak, ba? Bolivian ofizial-

tzat hartu dute geure hizkuntza. Perun, aldiz, gazteek ez dakite, ikastera behar-
tzen ez badituzu; eta nagusiak, dakite-
nak, ez dira hitz egitera ausartzen lotsa-
tzen direlako. Perukoentzat Amazonia or-
tua da, eta handik ateratzen dituzte egu-
rra, petrolioia, ura...

**Peruko gobernuak indigenekin
hitz egiten du, eta hori lehen ez zen
gertatzen...**

Lehen indigenok ez genekien zein-
tzuk ziren geure eskubideak. Gaur egun,
bai, ordea. Beraz, legediari jarraituz bo-
rrokatzeko aukera dugu. Hori ez zaio Pe-
ruko gobernuari batere gustatzen. Peru-
ko gobernu eta indigenen arteko gataz-
ka lehen Perun bertan baino ez zen eza-
gutzen, baina gaur egun, Interneti esker,
mundu mailara zabaldu da, eta ospe txar-
ra ekartzen dio Peruko Gobernuari. On-
dorioz, gobernuak adierazten du gurekin
hitz egiteko jarrera, ateak zabaldu dizki-
gute. Gu beti egon gara hitz egiteko
prest, geure lurra, geure ura, geure egu-
rra delako. Bestalde, momentu honetan
gure hizkuntzak du lehentasuna. Aldake-
ta eskoletan gertatu behar da. Peruko

Erabateko artista

Roberto Tananta duela 25 urte
jaio zen San Pedro de Tipisca herrian,
Peruko Amazonian. Gaur egun herria
ez da existitzen, Marañon ibaiaren
emaria hazi zenean, desagertarazi
egin zuelako. Roberto kukuma etnia-
koa da, tupi guarani familiakoa.

Basauriko laguna erabateko artis-
ta da: aktorea, musikaria, argazkila-
ria... Hainbat filmetan hartu du parte:
besteak beste, *Arcadia*, *Sukalde kon-
tuak* eta *Dragoien ehiztaria*. Gainera,
telesaiok, bideoklipak eta laburme-
traiak aipatu beharra dago. Gainera,
Dangiliske musika taldearekin jotzen
du herriko erromerietan.

“Denetarik egiten dut, edozein
egoeratik bizirik ateratzen den
haietakoa naiz. Ikus-entzunezko ko-
munikazioa ikasi dut hemen eta mu-
sika edo pelikulez egiteaz gain, karte-
lak, bideoklipak eta argazkiak ere egi-
ten ditut”.

*“Euskara dakidanez,
jendea beti laguntzeko
prest agertzen da”*

Amazoniako eskolek gure hizkuntza ira-
katsi beharko lukete, eta oso gutxi egi-
ten dute, eta ez ofizialki, gainera.

**Aurreko presidentea, Alan Garcia,
oso txarra izan omen zen indigenen-
tzat? Gaur egungoa, Ollanta Humala,
hobea da?**

Ez pentsa. Ondo hasi zen, baina urrats
gehiago eman behar ditu. Gaur egun ez
digu indigenoi jaramonik egiten.

**Nolako etorkizuna ikusten diezu
indigenei?**

Orena izatea espero dut. Gustatuko
litzaidake aititea hemen egotea, berak
egoera ikusteko. Gaur egun, askoz polita-
goa da. Jendearen jarrera itzela da eta
gure eskubideak defendatzeko zenbait
koordinadora sortu dira. Nik hizkuntza-
ren aldeko plataforma sortu nahi dut.

“Lasaitasuna sentitzen dut baleek

t: Itxasi Marina / a: I.T.

Zein motatako baleak dira?

Xibarta baleak dira. Arrek 12 metroko luzera ere eduki dezakete; eta emeek, 15 metrokoa. Kumeak hiruzpalau metro luze dira hasieran, eta Tonga uzten dutenean, hau da, Antartikora joaten direnean, bost edo sei metro luze izan dezakete. Hogeita bost eta 40 tona bitarteko pisua izan dezakete. Baleak urtero itzultzen dira aurreko urtean egon diren lekura; Tongara, gure kasuan. Eta hori arrazoi birengatik egiten dute.

Zeintzuk dira?

Kumedun daudenak kumea bertan izateko itzultzen dira Tongara; eta kumedun ez daudenak, kumedun gelditzeko. Normalean, ekainaren amaieran azaltzen dira Tongan eta lehenengo alde egiten dutenak, abuztu aldean, arrekin egon ostean, kumedun gelditu diren emeak dira. Kumea eduki dutenak azkenak dira alde egiten. Izan ere, Antartidarako bidea oso luzea da, eta itxaron behar dute kumeek bidaia egiteko nahikoa indar izan arte. Irailaren erdialdean edo amaieran uzten dute artxipelagoa.

Iaz instruktore ibili zinen bertan, aurten ere bai. Zelan hurbiltzen zarete baleengana?

“Oso animalia adiskidetsuak eta kuriosoak dira; gustura ez badaude, alde egiten dute eta kito”

IKER TXARTERINA | baleekin igerian

Zuek lerro hauek irakurtzen dituzuenerako, Iker munduko beste aldean izango da, Tonga herrialdean, Ozeanian. Han sei hilabete emango ditu, artxipelagora hurbiltzen diren turistei esperientzia zoragarri bat izaten laguntzen: baleekin igeri egitea.

Haiengandik gehienez 50 metrora hurbiltzen gara itsasontziarekin, eta uzten badigute, laukoteka sartzen gara uretara, haiekin batera igeri egitera.

Zein distantziara?

Baleengandik bost metrora egiten dugu igerian. Denboraldiaren hasieran zaila da haiekin igeri egitea, kumeak oso txikiak direnez amek babesten dituztelako. Baina, hilabete bat edo hilabete bat eta erdi dutenean, haiek hurbiltzen dira zuregana, oso kuriosoak direlako. Hori bai, debekatuta dago baleak ukitzea.

Arriskutsua ematen du, bada?

Bizitzaren edozein esparrutan gertatzen den moduan, istripuak egon daitezke, baina ez nuke esango egon direnak ere asko izan direnik. Dena dela, baleak saltoka badaude edo arriskutsua izan daitekeela ikusten badugu, ez gara uretara sartzen. Baleak oso animalia adiskidetsuak dira eta gustura ez badaude, alde egiten dute eta kito. Egia da oso handiak direla, oso buztan handia dutela, eta zugana hurbiltzen direnean pentsa daiteke jo egingo zaituztela. Baina



in igerian”

azken momentuan bira egiten dute eta ez da ezer gertatzen. Nahiz eta animalia astunak direla iruditu, mugimendu bat egiten duten bakoitzean distantzia handia egiten dute.

Zer sentitzen da baleen ondoan egonda?

Batzuei adrenalina igotzen zaie; nik lasaitasuna sentitzen dut haiekin igeri egiten dudanean.

Beste ikuspuntu bat ere izango duzu haiei buruz... Ikuspuntu berezi bat.

Bai. Askotan izaten duzu ama eta kumearen arteko harremana zelakoa den ikusteko aukera. Amak kumeari zelan laguntzen dion, azalera igotzen arnasa har dezan; kumeak amaren gainean zelan hegala biak ipintzen dituen eta muturra hartzen dion... Eta begiak ikusten dizkiezu. Beren begiek futbol-baloi baten tamaina dute eta haiengandik hurbil zarenean, zelan begiratzen dizuten nabaritzen duzu...

Lehen aipatu duzu baleak urtero itzultzen direla Tongara. Asko dira?

Zaila da kopurua zehaztea. Baleek zati zuri bat daukate atzeko hegala azpiko aldean, eta han tanto beltz batzuk. Tanto horiek patroia bat osatzen dute eta laguntzen digute bale bat bestearengandik ezberdintzen, non egon diren jakiten, aurreko urteetan ere Tongan egon diren... Argazkiak egiten saiatzen gara, haien gaineko informazioa edukitzeko. Kopurua zehaztea zaila dela esan dudan arren, aipatu beharra dago gero eta gehiago direla. Baleen % 80 galdu zen Hegoaldeko Ozeano Barean, jateko harrapatzen zituztelako, baina orain dela 25 urte debekatu zen baleak harrapatzea, eta gero eta gehiago dago.



Esperientzia berriro izateko irrikan

Iker Algortakoa da, baina lotura estua du Txorierrerekin, asteburuetan Larrabetzuko taberna batean egiten duelako lan. Sukaldaritza irakaslea da, eta sukaldari eta zerbitzari ere badaibil lanean. Baita urpekaritza irakasle ere. “Urpekaritzan saiatu nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Asko ikasi nuen, eta, irakastea ere asko gustatzen zaidanez, urpekaritza irakasle egitea erabaki nuen orain dela urte eta erdi”.

Iaz Tongara lan egitera joateko aukera suertatu zitzaion, eta han urpekaritza irakasle eta turistak baleekin igeri egitera eramaten ibili zen. Aurten baleekin bakarrik ibiliko da.

Esperientzia zoragarri bat bizi izan zuen eta hura berriro izateko irri-

kan dago. Iker egongo den artxipelagoak 5.000 biztanle baino ez ditu, eta bera biziko den irlak, zazpi kilometroko luzera. “Oso irla txikia da, taberna bakarra eta bost denda dituen, eta bizikleta bat leku batetik bestera ibiltzeko. Baina niri gustatzen zait halako lekuetan egotea. Hondartzak ere ez dira munduko politenak izango, beharbada, baina bakarrik zaude bertan eta nik horri ematen diot garrantzia”. Aurten tifoia bat egon da han, eta ez daki zehatz-mehatz zer topatuko duen irlara ailegatzen denean. Tongan abendura arte egongo da. Negua izango da bertan, baina tenperatura 18 eta 29 gradu artean ibiliko da. Eta Ikerrek xibarta baleekin egingo du igerian. Ez da plan txarra.



Gazteak, baserrira bueltan

Hainbat aldiz entzun dugu gazteek baserritik ihes egiten dutela eta hirira joaten direla lan egitera. Garai batean horrela izan zen, ziur asko, baina gaur egun kontrako joera dago Txorierriin: gazteek hiriko lana utzi eta ortuan hasten dira lanean. Hona hemen adibide bi: Ander Lasa, Lezaman; eta Rakel Cordoba de Samaniego eta Nagore Arroitauregi, Larrabetzun. Haiek bailarako betiko muin nekazaria berreskuratzen dute.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Ander 11 urte zituela ailegatu zen Lezamara. Gurasoak hiriarekin zebiltzan nazkatuta eta baserri bat erosi zuten Txorierriin. "Lorategiko landare-mintegia jarri zuten martxan. Nik laguntu egiten nien, eta 18 urterekin hasi nintzen eurekin lanean". Hala ere, 26 urte zituela Arte Ederrak ikastea erabaki zuen eta karrera bukatu zuenean, umea izan zuen. Beraz, lana topatu behar izan zuen. Hasieran, lantegi batean ibili zen lan-baldintza eskasekin. "Krisia etorri zitzaigun eta ni kaleratzear zeudenean, Laurentzi Hormaetxea nekazariak eskaini zidan berarekin lan egitea. Eta onartu egin nuen".

Horrela heldu zen Ander baserrira. Lezamarrak ez zuen aurreikusita, baina aukera sortu zen eta aprobetxatu egin zuen. "Oro har pozik nago. Lana oso gogorra da eta apur bat idealizatuta dago. Esate baterako, estresa egon badago. Izan ere, bes-

*"Baserritarrok
naturaren erritmora
egokituta bizi gara.
Eta hori gogorra
bezain polita da"*

*"Geuk jartzen
dugu prezioa, eta
erosleak benetan
produktuak balio
duena ordaintzen du"*



teak beste eguraldia ez dago zure menpe, eta horrek hondatu ahal du zure lana. Baserritar batek esan zidan lan honetan burugogorra izan behar dela. Hau da, uholdea badator, hurrengo egunean berriro erein, eta hurrengoan berriro, eta hurrengoan berriro... Beraz, naturaren erritmora egokituta bizi gara. Eta hori gogorra bezain polita da”.

Horrek esan nahi du naturak ere jartzen duela ordutegia, edo hobeto esanda, ordutegirik eza. “Ez dago ordutegi finkorik: uda sasoirik emankorrena da eta argia dagoenean aprobetxatu behar duzu. Eta horregatik egiten dugu lan gehiago udan neguan baino. Udan agian 12 ordu eta neguan, lau. Eta barazkiek ura behar dutenean, ura eman behar diezu, asteburua izan ala ez”.

Anderrek urtebete daroa baserrian eta mendizaleek esaten duten moduan, oraindik kanpamendu nagusian dagoela esan digu txantxetan. Baserrian lan egitea gogorra da, bai horixe, baina alde onak ere baditu. “Ez dugu nagusirik eta zure kabuz egin ahal duzu lan, hots, zeuk jartzen dituzu baldintzak. Eta zure lanaren alde borrokatzen baduzu, zeure alde baino ez duzu egiten, ez lantegi edo nagusi baten alde, eta horrek indarra ematen dizu aurrera jarraitzeko”.

Anderrek eta Laurentzik barazkiak ekoizten dituzte modu garbian, hau da, ez dute inolako produktu kimikorik erabiltzen. Barazkiak Lezamako erosleei zuzenean saltzen dizkiete, bitartekaririk gabe. Neguan kontserbak ere egiten dituzte:



piperrak, tomateak... “Astero sasoiko produktuek osatutako saskiak prestatzen dizkiegu bezeroei. Geuk jartzen dugu prezioa, eta erosleak benetan produktuak balio duena ordaintzen du. Harremana zuzena da eta horrek onura pilo bat ekartzen ditu natura, kultura eta gizarte mailan: energia aurrezten dugu, ingurugirora ere hobea da, bertoko ekonomia sustatzen dugu...”. Guztira 20 saski banatzen dituzte astean.

Krisia egon badago, noski, baina Anderren ustez, eurek agerian uzten dute aurrera ateratzea posiblea dela. “Ez dut neure burua adibidetzat hartu nahi, baina egia da, lurretik bizi ahal da. Egia esan,

hasiera batean oso gogorra da zerotik hasten bazara, baserria eta ortua hornitu eta prestatu behar dituzulako: negutegia, lurra, tresnak... Niretzat, adibidez, hori erraza izan zen Laurentzik dena atonduta zuelako”.

Begirunea lurrari

Nagore Arroitauregik 32 urte ditu eta Santurtzin jaio arren, Algortan bizi zen gaztetan. “Aitak ortua zuen Barakaldon eta ahal nuenean, hara joaten nintzen. Bertan pozik ibiltzen nintzen”. Nagore kirol monitore ibili zen lanean, baina naturarako grinak basoko teknikariko ikasketak egitera eraman zuen. “Hirian jaio naiz,

“Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik.”

SUITE DELUX
MARCA EXCLUSIVAR, ATXEDERAKO

Colchoneria Leioa La Avenizide 80 (Bilboko N. 10.000.000) 944.310.016	Colchoneria Arteaga Dondoa Serranona (Bilboko N. 10.000.000) 944.540.147	Lotara Koltxoi-Denda Euzkadi 176. 100.000 943.202.704
---	--	--

www.SUITEDELUX.com

baina mendian bizi nahi izan dut beti". Gaur egun Larrabetzun bizi da, Bizkargi mendirako bidean, ia-ia tontorrean. Leku polita eta aldapatsua bezain isolatuta. Natura basati-basatia.

Nagorekin batera Rakel Cordoba de Samaniegok bizi eta lan egiten du. Rakelek 30 urte ditu eta arabar Errioxakoa da. "Hamazortzi urte nituela Bilbora etorri nintzen diseinu grafikoa ikastera. Gurasoak nekazariak dira eta txikitatik beti ibili naiz ortuan. Bikotea hemengoa da eta etxea erosi behar izan genuenean, argi eduki nuen baserria nahi nuela. Eta Larrabetzun topatu genuen".

Nagorek eta Rakelek gaztetan ezagutu zuten elkar. Bizitza era antzeko batean ikusten dute biek. "Lehen osasuntsu elikatzen ginen eta begirune handiagoa genion lurrari. Hori guztia galdu egin da eta guk hori guztia, hain zuzen ere, berreskuratu nahi dugu. Nire ustez, bizitzeko erarik osasuntsuena geurea da. Hirian estres handiegia dago", esan digu Nagorek. "Gure ustez, gaur egungo gizarte-eredua ez da jasangarria. Behar duguna baino askoz gehiago kontsumitzen dugu", aipatu du Rakelek.

"Gizarte-eredua ez da jasangarria. Behar duguna baino askoz gehiago kontsumitzen dugu"

"Izugarri gustatzen zaigu Larrabetzu: herri txikia da, baina oso parte-hartzailea"

Nagore eta Rakel iaz hasi ziren barazkiak ereiten eta zelan ez, era ekologikoan egiten dute. Neskek sasoiko produktuek osatutako saskiak prestatzen dituzte ere, eta Larrabetzun banatzen dituzte. "Familiak elikatzeak izugarrizko garrantzia du guretzat. Ahalik eta ondoen egin nahi du-

gu eta oso arduratsu sentitzen gara. Alde batetik, lagun batzuek guk eskaintzen dieguna jango dutelako; eta bestetik, beste nekazarien lanaren ordezkariak garelako, hau da, txarto egiten badugu, jendeak uste izango du besteek ere txarto egiten dutela".

Larrabetzuartuak

Neskak ez dira larrabetzuarrak, baina primeran egokitu dira herrira. "Hasieran, ezagutzen ez gintuztenez, mesfidantzaz begiratzen ziguten, esaten zuten kinkiak ginela... (kar, kar). Beraz, askaria prestatu genuen eta auzokide guztiak gonbidatu genituen. Gehienak etorri egin ziren, eta handik aurrera harrera zoragarria egin ziguten. Era berean, Gurrupide baserriar eta kontsumitzaileen elkartean sartu ginen eta eurek ere primeran hartu gintuzten. Aholkularitza eta laguntasuna ematen digute. Izugarri gustatzen zaigu Larrabetzu: herri txikia da, baina oso parte-hartzailea".

Neskak hasi berriak dira eta, ondorioz, akatsak egiten dituzte. "Iaz leka pilo bat ekoiztu genuen eta ez genekien zer egin





haiekin. Azkenean Bilbora joan ginen eta jatetxeetatik ibili ginen saltzen (kar, kar)". Era berean, baserria eta ortua atontzen dabilta. "Negutegia duela gutxi egin dugu; negutegira doan bidea konpondu behar dugu lokatzez beteta dagoelako; tresna batzuk ez ditugu; ez

dugu tresnak gordetzeko etxolarik; konposta egiteko lekuri ez dugu; eta aldi berean baserria bera, gure etxea, berri-tzen gabiltza".

Lana gogorra da, argi dago. "Ezin zenbatu zenbat ordu ematen dugun egunero-egunero! Baldintzak ere ez dira batere

onak. Hala ere, niretzat bulegoan zortzi orduan ibiltzea askoz gogorragoa da. Gainera, baserriar lan egiteak alde onak ere baditu: niri lanak lasaitasuna ekartzen dit, ez daukat ugazabarik, eta pozik nago, neuk ekoizten dudana jaten dudalako, osasuntsu", esan digu Nagorek.

Baserrian baliabideak urriak dira eta neskek ezin dute inbertsio handirik egin. Baina horrela nahi izan dute: "Beste ekoizpen mota bat, zuzenagoa, lokalagoa. Oso erraza da supermerkatu joatea eta bertan barazkiak erostea. Baina hain merke erosten badugu, horrek esan nahi du nonbait norbaitek oso lan-baldintza txarrak dituela. Gure ekoizteko erari esker, harreman zuzena daukagu bezeroekin: saskiak etxez etxe banatzen ditugu, eta hori dela eta lotura sortzen duzu eurekin. Gonbidatu egiten zaituzte, familia ezagutzen duzu... Polita da".


Informazio gehiago:

Olabarriko baratza:

639 225 054 / 649 455 579

Gurpide elkarte:

www.gurpide.org




Derio

NEKAZARITZA ESKOLA BHI

NEKAZARITZA PRESTAKUNTZA

ERDI MAILA

- Nekazaritza ekologikoko teknikaria (A/D eredu)
- Lorezaintza eta loregintzako teknikaria (A eredu)

GOI MAILA

- Basoa eta natura ingurunearen kudeaketa (D eredu)
- Paisaigintza eta landa ingurunea (A eredu)



Ia 13 urte bete dira TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak AIKOR! aldizkariaren lehen alea kaleratu zuenetik. Hamabi urte, inguruko albisteak eta pertsonaiak zuoi hilero-hilero hurbiltzen, doan; euskara sustatzen eta erdaldun asko ere euskal mundura erakartzen; eta geure dendariei beren jardura zabaltzeko euskarri bat eskaintzen.

Gure herriak izugarri aldatu dira 13 urtean. Eta AIKOR! aldizkariak ere haiekin batera egin du aurrera. Hala, orri-kopurua eta tirada handitu egin dira: 20 orritik 40 orrira eta 4.000 aletik 7.000 alera, hurrenez hurren; eta zuri-beltzetik kolorera pasatu da.

AIKOR! aldizkaria gure bailaran erabat errotuta dagoen komunikabidea da gaur egun. Aztiker enpresak 2008. urtean egin-dako ikerketak argi adierazi zuen: AIKOR! aldizkaria Txorierri gehien irakurtzen den komunikabidea da. Baina hori guztia ez da egun batetik bestera etorri, ahalegin handia egin baita.

TOTOANEK hiru langile hartu zituen aldizkaria egiteko: publizitate-saltzaile bat eta kazetari bi. Diru-iturri nagusi bi eduki ditugu inprentatik eratorriko gastuak eta langileon soldatak ordaintzeko. Garrantzitsuena publizitatearen bidez lortu dugu; eta gainontzekoa erakunde publikoetatik jaso dugu: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea.

Dena dela, hasieratik ikusi genuen aldizkaria ez zela produktu errentagarria. Aipatutako diru-iturrien bidez lortutako



Zelan egin?

● POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa^(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea
48170 – Zamudio

● E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com
helbidera

● TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

● AHOZ:

Zure herriko euskara elkarteko
kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta erakundeetan, liburutegietan, komertzioetan... utziko ditugun diptikoetan topatuko duzue.

finantzazioa ez zen nahikoa ez proiektua aurrera ateratzeko, ez langileei soldata eta lanaldi duin bat eskaintzeko. Diru-iturri berri bat lortzeko asmoz, egitasmo berri biri ekin genien: Aikor!lagun kanpaina eta Lan Txorierri enpresa urtekaria.

Etxean, produktu bera

Euskara elkarteetako kideen ahalegina 122 aikor!lagun lortzea izan zen. Baina indarrak, batez ere, Lan Txorierri urtekarian batu genituen. TOTOAN federazioak beste langile bat kontratatu zuen, eta lehen alea 2006. urtean kaleratu genuen. Horrezaz gainera, beste lan batzuk egin ditugu denboraldi honetan, hala nola futbol liburuak eta beste erakundeetarako aldizkariak. Eta horrela lortu dugu AIKOR! hilero-hilero zuen etxean egotea eta langileok lan baldintza egokiak izatea. Era berean, Txorierriko Mankomunitatearekin batera Berbalagun egitasmoa jarri genuen martxan, eta beste langile bat kontratatu zen horretarako.

AIKOR! ez da irla bat gaur egungo testuinguru ekonomikoan. Inguruko denden eta enpresen irabaziak murrizten joan diren heinean, guk ere galera garrantzitsuak ikusi ditugu publizitate arloan, AIKOR! aldizkarian zein Lan Txorierri urtekarian. Gainera, erakunde publikoetatik jasotzen ditugun diru-laguntzak ere gero eta murriztagoak dira. Egoera bereziki joan den urtean gordindu zen, eta bost langileetarako laurengan dauka eragina.

Zenbakiak egin ostean, tristuraz ohar-tu ginen ez genuela nahikoa diru aldizkari bat argitaratzeko dakartzan gastuei aurre egiteko. Irtenbideak aztertu eta soldata eta lanaldia murriztea erabaki genuen lau langileok. Baina zuek etxean produktu bera jasotzen jarraitu duzue, erabakiak aldizkarian ahalik eta eragin gutxien izatea hartu genuelako helburu.



Txorierritarron alde

Hobera orde, txarrera egin du egoerak. Publizitatetik datozen diru-sarrerek beherantz jarraitzen dute, eta aurreten lau langileok berriro murriztu behar izan ditugu gure lan baldintzak. Datorren urterako egindako aurreikuspena ez da itxaropentsuagoa izan, eta, egia esan behar bada, ez dakigu egoerari noiz arte eutsi ahalko diogun.

Baina ziur gaude guztion artean egoera aldatu eta AIKOR! aldizkaria hilerro argitaratzen jarraitzeko gai izango garena. Hala, datozen hilabeteotan beste bultzada bat emango diogu Aikor!lagun kanpainari. Orotara 1.000 bazkide behar ditugu aldizkariaren jarraipena eta burujabetasuna bermatzeko. Urtean 30 euroko kuota ipini dugu; hala ere, zuek egiten duzuen edozein ekarpena ongi etorria izango da, 10, 20, 40 edo 50 eurokoa bada ere. Kopurua, zeuek erabaki!

Aikor!lagun kanpaina "1.000 baietz" lelopean eramango dugu aurrera. Eta Txorierrri 20.000 biztanle dituen eskualdea dela kontuan hartuta, erronka betetzea espero dugu: gaur egun ditugun 122 bazkideak gehi 878 lagun berri. Beraz, animo txorierritarrek!

AIKOR! aldizkariaren bazkide egitea, Txorierrriko euskara hutsezko komunikabide bakarraren biziraupena bermatzea da; hau da, txorierritarron alde egitea.

👉 *Hamabi urtean inguruko albisteak eta pertsonaiak hilerro-hilerro hurbildu dizkizuegu doan*

👉 *Bazkide egitea Txorierrriko euskara hutsezko komunikabide bakarraren biziraupena bermatzea da*



Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

Bankuko 20 zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

30 euro _____ Beste bat _____

Ori hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behe - 48170 - Zamudio



AIKOR!lagun kanpaina 2014ko maiatzaren 15etik 2014ko azararen 31ra bitartean egongo da. Kanpaina honen bidez 1.000 bazkide berri sartuko dira AIKOR! aldizkariaren bazkide zerrendan. Kanpaina honen bidez sartutako bazkideek 30 euroko kuota ordaintzeko behar izango dute. Kanpaina honen bidez sartutako bazkideek 30 euroko kuota ordaintzeko behar izango dute. Kanpaina honen bidez sartutako bazkideek 30 euroko kuota ordaintzeko behar izango dute. Kanpaina honen bidez sartutako bazkideek 30 euroko kuota ordaintzeko behar izango dute.

Ipuin eta liburu sexistarik ez aukeratzeko, galdetu zeure buruari...

Liburuak eta ipuinak funtsezko tresnak dira haurren hezkuntzan, izan ere, besteak beste, haien bidez transmititzen dira gizartearen ideiak osatzen dituzten balioak.

Txikiek irakurtzen goza eta ikas dezaten hautatzen ditugun liburu eta ipuinetako askok helarazi eta betiketzen dituzte rol eta estereotipo sexistak, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak handiagotzen dituztenak.

Mankomunitatearen Berdintasun Arloak fitxa batzuk prestatu ditu, saihesteko haurrek zein gurasoek berdintasunaren alde egiten ez duten, eta mutilak edo neskak izateagatik, batzuen eta bestearen erabateko garapena ahalbidetzen ez duten ipuin eta liburuak hautatzea. Fitxak Txorierriko liburutegi guztietan egongo dira eskuragarri.



Fitxetan galderak azaltzen dira, eta horien bidez jakin ahal izango dugu hautatzen ditugun liburu eta ipuinak sexistak diren, edo Berdintasuna lortzeko hezkuntzan lagungarriak diren. Ekintza honek haurrak hezteaz arduratzen direnei berdintasuna lortzeko tresnak ematea du helburu.

Jarraian zehazten diren galderak erantzun eta jakingo duzu zure seme-alabek irakurtzen dituzten ipuinek eta liburuek laguntzen duten gure gizartearen dauden rolak eta estereotipoak apurtzen, edo berdintasuna oztopatzen duten.

Erantzun gehienak baieztokoak badira, aukeratu duzun ipuina edo liburuak lanabes egokia da, seme-alaben heziketaren bidez, berdintasun arloan aurrerapausoak emateko.

Galderak	BAI	EZ
– Pertsonaia nagusia emakumezkoa da?	☐	☐
– Pertsonaien proportzioari dago-kionez, gehienak emakumezkoak dira?	☐	☐
– Emakumezko pertsonaiak agertzen al dira eremu pribatutik edo etxetik kanpoko lekuetan? (lanean, gauzez, lagunekin...)	☐	☐
– Agertzen diren neskak baloratzen al dira edertasuna edo itxura ez diren beste ezaugarri batzuenagatik?	☐	☐
– Emakumezko pertsonaiak aritzen ari al dira tradizioz emakumeei lotutako lanak ez diren beste lan batzuetan?	☐	☐
– Ohiko familiaz gain, agertzen al da beste familia edo bikote eredurik?	☐	☐
– Garrantzi bera ematen zaie tradizioz gizonenak izan diren gaitasunei eta emakumezkoenei?	☐	☐
– Gizonezko pertsonaiek egiten dizute etxeko lanak eta zaintzari dagozkionak?	☐	☐
– Emakumezkoen eta gizonezkoen espektatibak berdinak dira eta ez daude baldintzatuta gizon edo emakume izate hutsagatik?	☐	☐
– Emakumezko eta gizonezko pertsonaien arteko harremanak lanekoak edo lagun artekoak ere badira eta ez dira soilik izaera erromantikokoak edo bikote artekoak?	☐	☐

*Udalerrri bakoitzeko liburutegian zerrenda bat egongo da eta bertan liburutegian aurki daitezkeen liburuak eta ipuinak azalduko dira.



Txakurrak identifikatzeko kanpaina

Kanpaina Mankomunitateak jarri du martxan IROR-EUROCAN animaliak babesteko Txorierri ABEekin batera. Hori Txorierriko udalerrietan abandonatu edo galdu diren katuak eta txakurrak batzeko zerbitzua eskaintzen duen enpresa berria da.

Maiatzaren azken astean informazio-liburuxka bat jasoko dugu etxean eta kanpainaren berri ematen diren kartelak ikusiko ditugu. Helburua herritarrak txakurrak identifikatu eta erroldan sartu behar legalaz kontzientziatzea da.

Asko dira galtzen eta abandonatzen diren txakurrak. Lehenengo kasuan, txakurrak txipa badu, animalien % 99 topatzen dira galdu diren egunean bertan. Mikrotxipa-irakurgailua pasatu eta nahi-

koa da jabeen datuak izateko. Baina, txiparik ez badu, oso zaila da jabea nor den jakitea. Gainera, txakur batek txipa badu, zailagoa da hura abandonatzea, eta hori aurre egin behar diogun praktika da. Txiparik ez duten eta abandonatzen diren txakur gehienak ehiza-txakurrak dira, jabe batzuek baliagarriak ez direnean abandonatzen dituzte-eta.

Animaliak babesteko 6/1993 Legeak, urriaren 29koak, hau dio bere 10. artikuluan: "Txakurren jabeek bizi diren herriko Udalaren erroldan sartu behar dituzte animaliak. Horretarako, hilabete bateko epea dute animalia jaio edo hartu dutenetik. Animaliak beti eraman beharko du bere errolda-identifikazioa...". Lege honen arabera, errolda-identifikaziorik eza edo ani-

*Txorierri galdu edo
abandonatu diren
txakurrak hartu nahi
badituzu:
[facebook/guazenetxera](https://www.facebook.com/guazenetxera)
[twitter/guazenetxera](https://twitter.com/guazenetxera)*

malia esandako epean ez erroldatzea arau-hauste bat da.

Bestalde, EAEn txakurrak edukitzea arautzen duen 101/2004 Dekretuaren 2.2 artikuluan, ekainaren 1ekoa, jaso den moduan, txipa txakurraren lepoaren ezkerreko aldean ipiniko da. Identifikazioa albaitari ofizial batek ipiniko du, Foru Aldundikoa edo Udalekoa izan ahal dena, edo baimenduta dagoen albaitari pribatu batek.

Ekainaren lehenengo hamabostaldian, Udaleko langileak eta animaliak batzeko enpresaren langileak Txorierriko herrietatik ibiliko dira, bertoko txakurrak ondo identifikatuta dauden egiaztatzeko. Era berean, herri bakoitzean gun bat atonduko da, identifikaziorik ez duten txakurrei txipa ipintzeko:

Sondika: ekainaren 12an, Udaletxearen beheko aldean, 17:00etatik 20:00etara.

Loiu: ekainaren 17an, liburutegiaren ondoan, 17:00etatik 20:00etara.

Lezama: ekainaren 19an, Uribarri Topalekuan, 10:00etatik 13:00etara.

Derio: ekainaren 19an, Kultur Birikako trastelekuen ondoan, 17:00etatik 20:00etara.

Larrabetzu: ekainaren 24an, Anguleri kultur etxearen beheko aldean, 10:00etatik 13:00etara.

Zamudio: ekainaren 26an, Ehiza eta Arrantza elkartearen udaletxearen ondoan, 17:00etatik 20:00etara.

Edozein herritara joan daiteke. Jabearen NANA aurkeztu beharko da, eta 40 euro ordaindu txipa ipintzeagatik. Nolanahi ere, eta kanpaina hau alde batera utzita, edozein albaitarirengana jo daiteke txakurrari txipa jartzeko.

Bestelako informazioa:
www.nekanet.net/censocanino

Pazko jaien atarian

Jai-batzordeak egitarau zabala antolatu dau ekainaren 6tik 9ra arteko egunetarako. Besteak beste, boxeo, sukalki txapelketea, zaldien oztopo lehiaketea eta musika emonaldiak izango dira

Zamudioztarrek ekainaren 6an, bari-kua, botako dabe txupinazoa, eta halan hasierara emongo deutsee aurtengo Pazko jaiak. Aldekoa herriko boxeo taldeak boxeo-emonaldi bat antolatu dau egun horretarako. Guztira, bederatzi burrukaldi egingo dira eta klubeko bost kidek hartuko dabe parte bertan: Manu Ocampo, Denis Meno, Aimar Beika, Yeray Bermejo eta Rida Ramdome. Gainerako boxeolariak Bizkaiko beste klubetakoak dira. Burrukaldiak eskola zaharrean egingo dira, eta han be eskiniko da perretxiko jana. Xaiko, Urtz eta Urrats taldeek kontzertua emongo dabe plazan. Hamar urteko geldialdiaren ostean, Urtz taldea estudioan sartu zan igaz bere zazpigarren beharra grabetako. Zamudion aukerea eukiko dogu Donostiako musikarien disko barria ezagutzeko, eta taldearen abesti mitikoak gogora ekarteko.

Sukalki txapelketaz gainera, zaldien oztopo lasterketea eta azoka solidarioa egingo dira Bidekoetxe parkean. Azoka solidarioa Lagunandre alkartearen ekimena da eta, azaldu deuskuen moduan, han

*Aukerea egongo da
Urtz taldea
eszenatokian
barriro ikusteko*



a: Gaizka Peñafiel

Amara
ileapeindegia

Astakeren-egutia:
200-19.00
Lehena: 8.00-13.30

Irte plaza, 1. behe
Zamudio
94 4520419

Gorteia, 7. behe
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Fax: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Alfakalaitza Fiskala
Jon Vázquez García
ARTURIO ENOMUJIA

**Parte hartu
gure jaietan**



**Jaiak
euskaraz bizi!**





Heapandegia
Ana Belén
estetika - olatariuma

Perrutxako, 4 leinua • Tel.: 94 452 68 60 • 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*



**zamudion
euskeraz?
hoba er!**



BAR TXIKI

ESPEZIALITATEA TORTILLAK

Lehendakari kalea (Pasa, 18)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefonoz: 94 452 04 66



TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrearragoiti Ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

**OAKLAND
ENGLISH**

LEHENDAKARI LEIZAKOLA PLAZA 3
ZAMUDIO

946522857

MAILA GUZTIAK
ADVANCED • HIGH SCHOOL
FIRST • SECOND • THIRD
HIZKUNTZA ESKOLA
BUSINESS ENGLISH
BATXILERGOIA
D.B.H.



Carrefour
express



ORDUTEGIA
Auzkitxeratik ostiralean arte
09:00-14:30 / 17:00-20:00
Larunbatetik
9:00-14:30



Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Bere osasuna oso inportantea da, zuretzat zein guretzat

24h
Larriald
lokalizazioak
907 854 039

- Patologia kirurgikoa eta kirurgia (Traumatologia)
- Patologia medikoa: infekzioak eta parasitoak
- Ugalketari lotutako patologiak eta hazi-jartzea
- Ospitaleratzea
- Erradiologia
- Analisi klinikoak
- Ekografia
- Txakur eta katu ileapaindegia
- Janari tratamenduak

sondika
Albaitaritze klinika

humboldt 4 - berriz - 48150 Sondika (Bizkaia)
tel.: 94 453 12 08 - www.sondika.com - info@sondika.com

JON
ZAPATAK
KONPUNTZEA

ONDOPASA JAETAN

MATEO BIDARRIZAGA, 4
48150 SONDIKA
94 453 28 47

AI TOR
HERATEGIA URDATEGIA

MIKEL ZARATE, 2
SONDIKA
94 471 13 13

TXINTO TABERNA

Gosariak
Barak
Zerbitzuak errepresentat

Don. 1
88054 SONDICA
94 637 37 50

ASESORIA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidarrizaga, 1
Tfn: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 18
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Erpilen

PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Aizola, 1 berriz - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 453 30 00 - 909 94 88 43 / info@erpilen.com

Consulting
Sondika S.L.

Sabin Aizkolizaga
Asaguru agentzia
Albaitari
909 471 746

Leizorua, 10 Ondakoa
48150 Sondika (Bizkaia)

T: 94 453 34 07
Fax: 94 453 34 27

TABERNA • KAFETEGIA • JATETXEA

TINDAYA

GORA SAN JOAN

Txorierrri Etorbidea, 36
48150 SONDIKA (BIZKAIA)

Tel: 94 856 23 84
ken@cafetindaya.com

GELTOKI
TABERNA-KAFETEGIA

Plater konbinatuak
Lunchak

ONDO PASA JALETANI

Erremerterri, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
852 732 584

Txorierrri
BERRIZ

Rocio Astorkia Berdegaray
Krisa Herguedes Mansu
Marta Conde Bilbao
Arthos Rodriguez Milla

Donostia 3, berriz - 48150 - Sondika (geroan 94 471 12 00)
94 471 12 00 / txorierrri@94 453 300 - www.txorierrri.com



San Joan sua

Besteak beste, txapelketak, dantzen agerraldiak, erakustaldiak eta gastronomia arloko ekintzak antolatu dira, sei egunetan zehar jai-giroa eta parte-hartzea nagusi izan daitezcan udalerrian.

Txupina barikuan botako dan arren, motorrak aurreko egunean hasiko dira berotzen. Halan, Pentagrama kultura alkarteak emonaldia eskainiko dau egue-nean Kultura Etxean. Esan bezala, aurten-go San Joan jaiei ekainaren 20an, barikuan, emongo deutsee hasieraa Sondikan. Handik eta ekainaren 24ra arte, jai-egitarau eder batez gozau ahalko dabe sondikoztarrek; horreek eta herrira hurbiltzen diran bisitari guztiek. Izan be, Sondikako Udalak adin-tarte eta publiko guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dauz sei egunetan zehar jai-giroa eta parte-hartzea nagusi izan daitezcan udalerrian.

Jaietako lehenengo egunean, esate baterako, umeentzako haur-parkea eta diskofestea egongo dira. Tortilla lehiaketak be egingo da. Eszenatokira Euskal Herriko talde inportanteenetariko batek egingo dau saltu: Su Ta Gar, gaur eta atzoko abestiak birpasauko dauzana.

Zapaturako pintura lehiaketak antolatu dabe, umeentzako apar-jaiak, tirago-

ma lehiaketak eta dantzaldia. Eguerdian, Idiazabal gaztaia dastatzeko aukerea egongo da txosnetan, eta, horren ostean, bazkaria egingo da kultura eta kirol alkar-teakaz. Bazkalostea ederto girotuko dau

Su Ta Gar eta El Puchero del Hortelano taldeak kontzertua eskiniko dabe barikuan eta zapatuan

Taberna Ibiltariak. Gauean suak botako dira eta musika El Puchero del Hortelano taldeak ipiniko dau.

San Joan gaua

Sukalki txapelketea ohiko ekintza da jaietan eta ha domekan egingo da. Horrezaz gainera, erakustaldi bat egongo da goizean eta hara hurbiltzen danak zura motozerragaz zelan lantzen dan ikusi ahalko dau. Arratsaldean mus txapelketea izango da eta Gorantzaileak dantza taldeak dantzen agerraldia eskainiko dau. Dj Xaiborrek musika jarriko deutso arratsaldeari.

Astelehenean zaindariaren eguna ospatuko dabe, eta, ohikoa danez, gauean ekitaldi berezia egingo dabe suaren inguruan. Akerbeltz taldeak San Joan gaua girotuko dau. Jaiei martitzenean emongo deusie amaierea, baina egun hori be ekitaldiz beteta etorriko jaku. Kalejirak egingo dira, haur-parkea eta jubiladuentzako kopaua. Azken trakea iluntzeko 20:30ean botako dabe.



“Aurreko garaietako jarrerak uste baino ohikoagoak dira gazteen artean”

ANE NAVARRO MARTÍN | gizarte hezitzailea

Lezamako Udalak tailer batzuk antolatu ditu neska eta mutilen artean bardintasuna sustateko, eta emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko. Tailerrak Ludoteka, Gazteleku eta Gazteguneko erabiltzaileei dagoz zuzenduta eta Urtxintxa eskola eta Sortzen aholkularitza-enpresa dabilz emoten. Teknikarietarikoa batek gaztetxoek genero eta bardintasunaren gainean daukien ikuspegia hurbildu deusku.

t/a: Itxaso Marina

Zelango tresnak erabiltzen dira tailerretan?

Nerabeek gura dabelako datoz tailerretara. Badaukie gaiaren gaineko kontzientzia, bere pentsamoldea, eta erraza da hareakaz eztabaidan aritzea. Bideoak, kankak, filmak... erabiltzen dira. Umeakaz gatzagoa da. Jolasak eta oso ludikoak diran ekintzak erabili behar dira, aspertu ezkerro ez dabelako interesik jarten. Kontzeptuak oso modu sinplean azaldu behar jakez.

Gazteek antzeko jarrerak daukiez han eta hemen. Zeintzuk dira?

Nahasketa handia dabe; generoa zer dan ez dakie eta handik hasi behar da beti. Nahiz eta berbak erabiltzen jakin ez, nesken artean haserrea edo sumindura nabaritzen da. Ez jake gustaten gizarteak emakumeak zelan tratatzen dauzan. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka azaltzen diranak badagoz eta oso jarrera burrukalaria izaten dabe. Baina feminismo gehiegi darabilgula pentsaten dabenak be badagoz, emakumeok gehiegi eskatzen gabilzala. Feminismoa matxismoaren kontrakoa dala pentsaten dabe, eta feminismoak sexu biren arteko esku-

bide- eta aukera-bardintasuna helburu daukala azaldu behar jake; matxismoaren kontrakoa hembrismoa dala, ez feminismoa. Adibide asko ipini behar dira, zelango errealidadean bizi garen konturatu daitezana.

Zer geratzen da betaurreko moreak ipintzen dabezanean?

Gizarte patriarkala hain dogu barneratuta, gauza asko ikusi be ez doguzala egiten; normalizat doguz. Beraz, ez da behar erraza gazteak be konturatu daitezala. Baina tailerrek hausnarketara bultzatzen dabez eta eztabaida sortzen da euren artean. Ezagutzen daben abestiren edo filmen bat aztertzen dogunean, apur bat lekuz kanpo lotzen dira eta saiatzen dira han ikusten dabena justifikaten: *hori mutilak neskea asko maite dauelako da*. Eztabaidaren ostean onartzen dabe film edo abesti horreetan agertzen diran klitxeak ez dabezala tailerretako ikuspuntutik inoiz aztertu.

Ikerketek dinoe gazteek oso barneratuta daukiezala maitasun erromantikoa, kontrola... eta antzeko kontzeptuak edo jarrerak.

Gazteek beste gazteak daukiez erreferentetzat, eta telebistan-eta ikusten dabena. Bardintasunaren eta errespetua-



“Askotan saiatzen dira ikusten dabena justifikaten: hori mutilak neskea asko maite dauelako da”

ren gaineko informazioa emoten da, kanpainak egiten dira... baina beste aldeetik jasoten daben informazioa askoz zabalagoa da. Ikusi publizidadean, telebistako saioetan, eurei zuzendutako liburuetan eta filmetan... azaltzen diran mezuak. Sexismoaren eta genero rolen aldekoak dira.

Zelan jokatzen dau gaur egungo gazteriak?

Aurreko garaietakoak dirala pentsau litekean jarrerak eta esaldiak uste baino ohikoagoak dira gazteen artean: gizonak emakumea babestu behar dauela pentsatea, bikotea kontroletea normalizat hartzea, nogaz ibili ahal dan esatea, eta nogaz ez... Mutil askori entzun deutset neskalagunari zein arropa ipini eta zein



ez esaten deutsola, badakielako gizonak zelakoak diran. *Eta zelakoak zarie?*, galde-ten deutset nik. *Erasotzaileak?* Eta kontu- ratzen naz zelako nahaste-borrastea dau- kien buruan: euren jarrerak eta berbak justifikaten saiatzen dira eta behar horre- tan kontraesan asko adierazoten dabez.

Eta neskak?

Eurek be kontrolaten dabe mutil-la- guna, eta sare sozialen edota telefonoa- ren bitartez egiten dabe. Jeloskortasuna- gaitik egiten dabe, izan be, oso barnera- tuta daukie emakumeek gizona lortzeko burukatu behar dabela. Hori gure gizarte patriarkalaren beste idea bat da: emaku- meok alkartu eta gure aurka jarten dabe- zan traba guztien kontra burukatu beha- rrean, gure artean burukatzea. Gizonen artean, ordez, alkartasuna bultzatzen da. Estereotipoek eta rolek gizartea garatzen dabe, emakumeak zelangoak izan behar garen esaten deuskue, eta gizonak zelan- goak. Gazteek oso gitxitan egiten dabe barneratuta daukiezan generoari lotuta- ko ideen gaineke hausnarketea, eta horrek podere ezbardintasunaren eske- mea behin eta barriro errepiketea dakar, indarkeriara daroan eskemea dana.


Tailerrak jarrera horreek ekidin eta bardintasuna bultzatzeko egiten dira,

baina ez da nahikoa. Zelako papera euki beharko leuke eskoleak?

Ikastaroak egiten dira ikastetxe ba- tzuetan, baina oso laburrak izaten dira eta ez dago asko lantzeko astirik. Nik beti esaten dot beste ikasgai bat izan beharko litzatekeala, gaztetxoek gai honetan dau- kien gabezia oso handia dalako. Halanda be, ezinbestekoa da irakasleak be kon- tzentziauta egotea eta, egia esan, ba- tzuetan sekulakoak entzun dodaz nik ba- tzuen ahotik. Prestakuntzea eskatu jake- nean be ez dabe interesik adierazo.

Ez da erraza gizarteak estereotipo- ak hain barneratuta daukazanean.

Hasieratik hasi behar da. Ez gara kon- turatzen, gura barik egiten dogu, baina neskak alde batera bideratzen doguz txi- kitatik, eta mutilak beste alde batera. Ikusi zelango ipuinak kontaten deutsegu- zan, zelango opariak egiten deutsegu- zan, zelango teleaioak ikusten dabe- zan... Behar handia dago aurretik eta aus- kalo zer gertatuko dan, batez be orain, gauzak atzera doazala emoten dauene- an: abortuaren legea eta LOMCE, adibi- dez. Ezarri gura deuskuezan gauza asko- tan ikusten da ideologia patriarkala eta matxista. Beharrean jarraitu beharko, beraz.





**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefona:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

a: Itsasne Zubiri

Ikasturtea amaitzeaz dago, eta guk gelditu ezinik jarraitzen dugu; nekerik ez! Hala, maiatzaren 8an teleskopioa hartu eta Derioko Kultur Birikaren atzealdeko aparkalekuan batu ginen eguzki sistema-ko zenbait planeta behatzeko. Esan beharra dago zalantzan egon ginela ekitaldia bertan behera utzi ala ez. Izan ere, egun horretarako baldintza atmosferikoak ez ziren onenak behaketa egiteko, baina iluntzeko 8ak aldera oskarbi zen eta berbalagunok eta herritarrek hasi ginen



hitzordua ipinita genuen lekura hurbiltzen.

Behaketari gaueko 9etan ekin genion. Jon Legarreta fisikari doktore derioztarra EHuko irakaslea eta Zientzia Planetarioak ikerketa-taldeko kidea da, eta ekitaldia berak zuzendu zuen. Mila esker zure teleskopioa ekarri eta handik begiratzen uzteagatik! Ilargia ikusi genuen, krater eta guzti; baita Jupiter eta haren sateliteak ere. Baina konturatu orduko, berriro lainotu zen, eta Saturno eta Marte ikusi barik alde egin genuen handik.

Azken txanpa

Behaketa ez da maiatzerako antolatu dugun ekintza bakarra. Hilaren 31n, Izarran batuko gara Euskal Herri osoko berbalagunekin, eta Mintza Eguna ospatuko dugu bertan. Ekitaldiaren leloak adierazten duen moduan, mingainak dantzari ipiniko ditugu! Mintza Eguna berbalagunok oporrak hartu aurretik egiten dugun jai erraldoia da, eta aukera ematen digu elkar ezagutzeko eta gainontzekoen errealitatearen berri izateko. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi gozatuko dugu: Beluntzako ur jauzietara ibilaldia, mintzodromoa, mintza kalejira, bazkaria, erromeria eta kontzertuak.

Ekain gastronomikoa

Oso jatun gara berbalagunok, eta gastronomiari lotutako ekintza bi izango ditugu ekainean. Hilaren 13an, pintxo bazkaria egingo dugu Kultur Birikan. Bakoitzak prestatzen duen pintxorik goxoen era-mango du hara, eta guztion artean dastatuko ditugu. Pintxo bazkaria 13:30etik 15:30era izango da. Ekaineko azken ekitaldia Lagatzu Zamudioko euskara elkartearekin batera egingo dugu hilaren 20an. Geldoko txokoa barbakoa argentinar erara prestatzen ikasiko dugu. Ikastaroa iluntzeko 8etan izango da eta 15 euro balioko du. Afaria prezioaren barne egongo da. Ikasturteari zapora goxoarekin emango diogu amaiera, bai horixe!



**Magalarte
Txakolina**

ARTETA VALLE DE LOS RIOS

75 cl.
Botoia 10,75% vol.



**hotela
jattetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Erakuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 60 00
Faxa: 94 403 60 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETAK
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua: 94 452 11 58
ZAMUDIO

LAGATZU EGUNA EUSKAL JAIA 2014

Euskera da Euskal Herria

**Ekainak
28
zapatua**

**Ekainak
27
barikua**

**20:00 MUSIKA KALEAN,
DUODENO** Taldeagaz
Fernan eta Rafi tabernen
arteke plazan

11:00 CUP SONGa Agirre Lehendakari plazan eta Gorbeia kaleko plazan

11:30 HAMAIKETAKOA Gorbela kaleko plazan

12:00 MURAL ERRALDOIA Eskola zaharreko patioan, danon arrastoagaz

ZEIK BE TAR I ZURE ESKU!!

12:30 CUP SONG SUGE LUZEA eginez, Leizaola Lehendakari plazara

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA

Bertoko eta bertsolariak - *Hiru bat eta Gazte Alai*

MOTOR JOKOAK, Leizaola Lehendakari plazan Zamudio Racing
Elkartearen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA, eskola zaharrean 15 € nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai. Azken eguna
ekainaren 23a, astelehena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARI Agaz,
JOKO ETA JOLASAK KULKI taldeagaz

20:00 ERROMERIA, TRIKIZIO taldeagaz eskola zaharrean

Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea be
euki dogu



Animatu eta parte
hartu koadrileagaz
Jantzi zaitez antzinako
euskal erropakaz!

Teknologia, gaztetxoengandik hurbilago

Campus teknologiko bat egingo da udan Politeknika Ikastegia Txorierrin. Jesus Angel Bravo egitasmo horren ardura duna da, eta berak argitu digu zazpi urte tik hamalau bitarteko neska-mutilentzat egingo dela campus hori. "Teknologiaren erabiltzaile ez ezik, teknologiaren egile ere izatea nahi da; hau da, ikas dezatela zelan egiten diren gauzak, eta har dezatela parte diseinuan eta sorkuntzan".

Hiru arlo jorratuko dira horretarako: robotak egitea, bideojokoak sortzea eta aplikazioak garatzea.

Teknologia-arlo guztien artean, robotika da etorkizun handiena dutenetako bat. Esparru dibertigarria eta entretenigarria da ume eta nerabeentzat, eta roboten oinarritzko ezaugarriak ezagutzeko aukera emango zaie. Eragingailuen eta sentsoreen funtzionamendua ere ezagutzeko dute, eta robot konplexuak egin eta programatzeko dituzte. Robotika aurreratuaren tailer bat ere egingo da eta txapelketa bat antolatuko da astero parte-hartzaileen artean. Onenak diren talde biak Estatuko txapelketara joango dira.

Bideojokoen diseinua eta gailu mugikorretarako aplikazioen garapena dira, ziur asko, datozen urteetan gehien haziko diren teknologia-esparruak. Campus hauetan parte hartzen duten gaztetxoek diseinuan eta programazioan egingo dituzte lehenengo urratsak. Gauza bi besterik ez zaie eskatuko: irudimena eta teknologia berrietan interesa izatea.

Modu ludiko batean

Campus teknologikoak badu aurten erronka berezi bat: neskak erakartzea teknologia-mundura. Bravoren esanetan, oso neska gutxi egiten ditu teknologia arloko ikasketak, eta berariaz haientzat zuzendutako tailerrak egingo dira campusean, teknologiarako grina piztu dakien.

Juan Angel San Vicente Politeknikako zuzendaria da eta, adierazi digunez, gazteak industria arloko ikasketetara bidera-


tzea dute, besteak beste, helburu. "Industriak aberastasuna sortzen du, eta lagungarria da ekonomia berpizteko eta gaur egun bizi dugun egoera txarra gainditzeko". Zentroak ikasketa horiei loturiko hitzaldiak ematen ditu DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat, eta zenbait ekitaldi antolatzen ditu; esaterako, bisitaldiak egin dira BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentrora. "Uste dugu gazteek txikitik izan behar dutela harremana teknologiarekin, institutua amaitzerakoan argia go jakin dezaten zer ikasketa aukeratu. Campus teknologikoa oso aukera ona da, beraz, modu ludiko batean hurbil daitezten teknologiarako, eta ikus dezaten, adibidez, zelan funtzionatzen duen robot bat".

Campusa ekainaren 23tik 27ra, ekainaren 30etik uztailaren 4ra, eta uztailaren 7tik 11ra egingo da. Izena ematea www.camptecnologico.com webgunean egin behar da, eta informazio gehiago ere kontsulta daiteke bertan.

Formula Student Bizkaiarekiko hitzarmena

Martxoan sinatu zen hitzarmena, eta haren ondorioz Politeknikako tailerretan fabrikatuko dira Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek datorren urterako diseinatu eta egingo duten autoaren abatzak. Eugenio Díezek adierazi digunez, unibertsitatean dabilen ikasle ohi batek proposatu zien proiektu horretan parte hartzea. "Hura azertu, eta egiteko modukoa zela ikusi genuen. Izan ere, mekanika da guk lantzen dugun arloa, eta inportantea da guretzat proiektuan egotea. Gainera, aukera ona da unibertsitatearekin eta beste enpresa batzuekin harremanak izateko eta finkatzeko".

Ardatza eta gurpilak lotzen dituzten piezak dira abatzak. Datorren ikasturtean hasiko dira Politeknikan pieza horiek egiten, eta hamasei ikaslek hartuko dute parte proiektu horretan.



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Ipuinak hitz egiten hasi baino lehen ikasi genituen eta ez ditugu ahaztuko idatziz ezingo dugunean ere.

Bestalde, informatika roboten arima
da, baina pertsonena ere bai?

Zenbait etxetan, bazkaltzeko orduan neskak nahiz mutilak mugikorrarekin ibiltzen dira. Euren gurasoek ez dute protestarik egiten. “Mugikorraren modan bizi gara –diote–; zer egingo dieogu?”.

Informatikak bide berriak irekitzen ditu, baina ate batzuk itxi ere bai, geure erruz. Oraingo topikoa da esatea: informazioa interneten dago. Baina ez da esaten: ipuinik ederrenak amak irakatsiak edo aitarengandik ikasitakoak dira.

Anbotoko Mari, Iamiak, Tartalo, Mari Errauskin, Ederra eta piztia, Loti ederra; horiek guztiak irakurri ahal ditugu papezko liburuetan zein liburu elektronikotan, baina amamak edo aitaitak kontatuta ez dira gozoagoak, beroagoak, kutunagoak?

Resurrección Maria Azkuek haxe idatzi zuen *Euskal Herriaren Jakintza* liburuan: “Mari Karmen Aberasturi eta Uribarri neure ama maiteari” –euskara neuk moldatua–: “Nire hiztegieta eta *Euskal Herriaren Jakintza*ko 4 liburuetan 2.000 bider agertzen dira **B-mu** hiru letrak, hau da, Bizkaia eta Mundaka. Ba, 8 edo 10 gai izan ezik, beste guztiak -1.990 gai- amaren ezpainetatik neure belarrietara jaitsiak dira; alkarregaz urte askotan, aurrez aurre bazkarietan eta afarietan gengozela entzunak”.

Azkueren ipuinak eta mugikorra jatorduetan



Imajina ezazue eszena hau: Azkue mugikorrarekin, eta ama isil-isilik ma-

haian. Badakizue zenbat ipuin, abesti, kanta, atsoitz galduko zitzaizkigun?



lezama

consultorio veterinario
albaitaritza klinika

www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Watorragi
B-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak




94 455 56 19

Amekalde, 21bis • 48126 Lezama

Etxeko sukaldaritza**Mailuki eta gaztaizko tartea***Maite Lekerika***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 500 g gaztai, igurtzeko
- 500 ml esnegain
- Sobre bat mailukizko gelatina
- Limoi baten ura
- 200 g mailuki (garbituta eta txikituta)
- 200 g gaileta (Maria txigortuak)
- 125 g gurin
- Mailukizko mermelada edo sobre bat gelatina, tartea estaltzeko

Prestetako area:

Gailetak irabiagailuaz birrinduko doguz. Zartagin baten gurina urtuko

dogu, gailetak bota eta su ez tian priji-
duko doguz, harik eta gorritzen diran
arte. Tartak egiteko molde baten zabal-
duko dogu gaileten area.

200 ml gelatina urtuko dogu ure-
tan. Irakin, eta mailukiak gehituko do-
guz. Hogeita hamar segundoan eukiko
doguz irakiten. Uretatik atera, eta epel-
tzen itxiko doguz.

Gaztaia, esnegaina, limoi-ura, gela-
tinea eta mailukiak irabiauiko doguz.
Moldera bota eta hozkailuan 6-8 or-
duan izango dogu hotzitzen, ondo go-
gortu arte. Tartearen gainean mermela-
dea edo gelatineia (ur berotan urtua)
bota eta ondo zabalduko dogu.

**Tomate eta
antxoba-
entsaladea****Osagaiak (lau lagunentzat):**

- Tomate bat
- 12 antxoa
- Ozpin-pepino bi
- 200 ml ozpin
- 100 ml oliba-orioa
- 3 berakatz atal
- Gatza
- Perejila
- Kanonigo-ostoak

Prestetako area:

Antxoei erraiak kendu eta gar-
bituko doguz. Berakatz eta pere-
jila txikituko doguz. Ontzi batean
antxoak ipiniko doguz eta ozpi-
naz estalduko doguz. Ontziari es-
talgia ipini, eta hozkailuan gitxie-
nez lau orduan eukiko dogu.
Antxoak xukatu eta beste ontzi
baten ipiniko doguz. Berakatz,
perejila eta orioa bota eta hozkai-
luan sei ordu inguru izango
doguz.

Tomatea xerratan ebagi eta
plater baten ipiniko dogu. Gatz
apur bat botako dogu. Tomatea-
ren gainean antxoak jarriko do-
guz, eta, hareen gainean, ozpin
pepinoak (xerratan ebagiak) eta
kanonigo-ostoak.



Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pila bat dirudi zure aurrealderako

cianoplan
argazki zerbitzuak

www.bizkaiaadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure epeleko egiteko

9,32€

ek harria



Zer irakurri?

Zergatik ditu zebrak marra beltzak?

Atotz Goikoetxea (Liluraturia)

Testua: Lesley Sims

Marrazkiak: Laure Fournier

Argitaletxea: Ttarttalo

Irakurketaren munduan sartzen ari diren umeentzako istorio hau, Namibiako herri-ipuina batean oinarrituta dago: munduan izan zen lehenengo zebraren marra nola sortu ziren kontatzen digu.

Afrikan esaten denez, aspaldi, lurra gaztea, beroa eta lehorra zenean, oso ur gutxi zegoen. Bazen ur-putzu bat, animalia guztiek desio zutena. Baina, behin batean, tximino bat etorri zen ur-putzura, eta hango jaun eta jabe egin zen. Ura edan nahi zuen animalien bat etortzen zenean, sua pizten zuen, eta ikaratu egiten zuen. Ura berea zela esaten zuen. Egunak etorri eta gauak joan, animaliek



gero eta egarri handiagoa zuten, tximino krudelaren erruz.

Goiz batean, zebra bat agertu zen putzura, bidaia luzea egin ondoren egarria asetzeko. Mundua gaztea zenean, zebrek ez zuten marrarik oraindik; larru zuri-zuria zuten. Zebra zuria uretara hurbiltzen ari zela, tximinoa saltoka hasi zen, haserre, eta joateko esan zion, uraren jabea zela esanez. Baina zebra ez zen ikaratu, eta ura guztiena zela erantzun zion. Horrek izugarri haserrarazi zuen tximinoa, eta zebrarekin borrokan hasi zen. Tximinoak indarra eta hortz zorrotzak erabili zituen, eta zebrak ostikadaka erantzun zion. Ostikada indartsu batek, hegaz bidali zuen tximinoa. Hain gora joan zen ezen, lurrera heldu zenean, sua pizteko erabili zituen adarren gainera erori baitzen. Adarretako batzuk zebraren gainera jausi ziren, eta horrela egin zitzaizkion marra beltzak. Eta horregatik dute egun hartatik, tximinoek ipurdi gorria.



Azokak

Derio

- > Truke azoka. Ekainaren 22an, 10:00etan, Sollube kalean. Txoriberri elkarteak antolatua.

Erakusketak

Derio

- > Pintura. Ekainaren 4tik 26ra, Kultur Birikan.
- > Eskola-agenda 21. Ekainaren 9tik 19ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Danele Sarriugarteren *Erraiak* liburua. Ekainaren 19n, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili euskara elkarteak eta Udalak antolatua.

Lezama

- > Uda programa (gurasoei zuzenduta). Ekainaren 27an, 19:30ean, Kultura Aretoa.

Ikastaroak

Zamudio

- > Zen ikastaroa. Ekainaren 1ean, 11:00etan, eskolan.

Ikuskizunak

Derio

- > Antzerkia, Kukuke antzerki taldearen eskutik. Ekainaren 10ean, 18:00etan, Gurea Aretoa.

Irteerak

Sondika

- > Sollube-Burgoa-Bakio. Ekainaren 1ean, 09:00etan, ikastetxeko aparkalekuan. Guraso elkarteak eta Udalak antolatua. Izena ematea: maiatzaren 29ra arte.

Zamudio

- > Lekeitio. Ekainaren 1ean, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Urkiola-Kanpanzar. Ekainaren 22an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Kantabria mendilerroa. Ekainaren 14an eta 15ean, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Aiako harria. Ekainaren 21ean eta 22an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Inguruko berdegunea. Ekainaren 29an, 08:30ean, Herriko plazan. Arroeta mendi taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Urkiola. Ekainaren 13an, Gure Etxeak antolatua.
- > BHK ibilaldia: bunkerrik bunker. Ekainaren 21ean, 10:00etan, plazan.

Jaiak

Derio

- > Eskolako jaiak. Ekainaren 20an, 15:00etan.
- > San Joan sua: dantzak, txokolatada... Ekainaren 23an, 19:00etan, Mikel deuna plazan.

Zamudio

- > San Tomas. Ekainaren 13tik 16ra.
- > San Zenon. Ekainaren 22an, Galbarriatu auzoan.
- > Euskal Jaia-Lagatzu Eguna. Ekainaren 28an. Ikasturte amaierako festa, Ludotekan. Ekainaren 20an.
- > Eskolako jaiak: puzgarriak, musika, erakusketak, bazkaria... Ekainaren 21ean.

Lezama

- > San Joan gaua. Ekainaren 23an, 20:00etatik aurrera, frontoi atzeko landan: afaria, musika, trikitilariak, dantza, sua...
- > Eskolako jaiak. Ekainaren 14an.

Larrabetzu

- > San Antonioak, Eleizalden. Ekainaren 13an.
- > Eskolako jaiak: herri kirolak, musika, bazkaria, antzerkia... Ekainaren 14an.

Kirolak

Sondika

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 7an, Artebe eta Goronda Beko kiroldegietan.

Derio

- > Kirolari ateak zabalik. Ekainaren 7an, 11:00etan, kiroldegian eta frontoian.
- > Frontenis Txapelketaren finalak. Ekainaren 7an, 12:00etan, frontoian. Atxiki pilota taldeak antolatua.

Zamudio

- > San Pedroetako plater-tiroko saioa, Ehiza elkarteak antolatua. Ekainaren 21ean, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian.

Musika

Larrabetzu

- > Udaberriko kontzertua: Zamudioko Kamara Korala, Bilboko Garaizarko Matso-riak eta Itxartu Abesbatza, eta Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza. Ekainaren 14an, 20:00etan, Eleizaldeko elizan.
- > Mikel Markez eta Arkaitz Miner. Ekainaren 15ean, 18:30ean, Hori Bai gaztetxean.
- > Ikasturte amaierako emanaldia, Musika Eskolaren eskutik. Ekainaren 19an, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Bestelakoak

Derio

- > Dantza. Ekainaren 1ean eta 29an, 18:00etan, kanpoko frontoian. Nagusien elkarteak antolatua.

Zamudio

- > Mungiako San Pedroetarako autobusa, Gazte estazioak antolatua.

Larrabetzu

- > Udalekuetan izena ematea. Ekainaren 2tik 6ra, Anguleri kultur etxean.



Zure oporrak Danerik Parajeren kontu!!!

Danerik Paraje saltokietan, maiatzaren 1etik ekainaren 30era egindako erosketekin bi pertsonentzako bidaia zozkatuko da. Derioko VIAJES ECUADOR BIDAIAK-en prezio berdintsua duen beste baten truke aldatu ahal izango da. Denda bakoitzak 10 €tik gorako salmenta bakoitzeko zigilubakarra jarriko du txarteletan. Zozketan parte hartu ahal izateko, txartel bakoitzak bi zigilu izan beharko ditu. Hauek hartu bezain laster, txartela Kultur Birikan dagoen kutxan sartu ahal izango da. ZOZKETA eta SARI banaketa Derioko Kultur Birikan izango dira.



ERDIAKAREN SARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



**Derioko Zerbitzu eta
Merkataritzako
Elkarte Profesionala**





sustatzalea
BEKOETXEBARRI S.L.

41 VPO-BOE ETXEBIZITZA

TRASTELEKU ETA GARAJEAREKIN

130.575€ + BEZ-tik hasita

INFORMAZIO GEHIAGO:
TALLER 3. ZAMUDIO
94.657.93.73



zozketan
txorierritar
GUZTIEK
parte har dezakete
IZENA EMAN!



A PARTZELA

3 logelako 20 etxebizitza eta
2 logelako etxebizitza egokitu bat.

C3 PARTZELA

3 logelako 19 etxebizitza eta
2 logelako etxebizitza egokitu bat.

VPO BOE 41

etxebizitza
Zamudion

